

Pantailaren aurrean babestuz


Telebistako eta ordenadoreetako pantailak igortzen duten erradiazioaren aurrean babestu beharraz sarritan hitz egin izan da. Alabaina, ez da irtenbide egokirik aurkitu, besteak beste, erradiazio horiek giza osasunari kalterik egiten ote dioten ez delako

tzen dira. Hori irakurle, ezaguna izango zaizu, beharbada zuri ere maiz gertatu zaizulako. Ikerketa horien arabera bada, horren guztiaren eragilea pantailak igortzen duten erradiazioa omen da; are gehiago, maila batetik gora, erradiazio horrek hainbat hormonen funtzionamendu egokia galaraz dezake, arratoiekin laborategian egindako saioez baieztatu ahal izan denez.

Arestian aipatu dugun goi-bileran arazo horren irtenbidea izan daitekeen babes-mekanismoa aurkeztu zuten. Tecno-phère izeneko enpresak egindako Tecno AO izeneko antenak telebistako edo ordenadoreko pantailak igortzen duen erradiazio-eremua modulatu egiten du, uhinek giza osasunari eragiten dioten kaltea murriztuz. Goi-bileran parte hartu zutenen artean ez zen antenaren eraginkortasunari buruzko erabateko onespenerik lortu, baina ikerketa-lerro horren balioaz zalantzarik gabe mintzatu ziren. Adi beraz, hurrengo hilabeteetan kaleratuko diren albistei.


Nork kontrolatuko du ikertzailea?

Gizaki guztiok ez dugu temperatura baxuetara eta muturreko bizi-baldintzetara egokitzeko gaitasun bera. Alaskako



Alaskako herrixka batean egindako ikerketek polemika bizia piztu dute. Zilegi al da informazioa ezkutatzea? Onargarria al da zientziaren izenean edozer egitea? Horra hor milioiko galdera: nork kontrola ditzake ikertzaileak?

Telebistaren edo ordenadorearen gainean jarrita, Tecno AO izeneko antenak pantailak igortzen duten erradiazio-eremua modulatu egiten omen du. Erradiazioak giza osasunari eragiten dion kaltea murrizteko aukera eskainiko omen du. Nolanahi ere, oraingoz dena da "omen".



erabat baieztatu orain arte. Berriki aldiz, Elektrobiomagnetismoko Europako Elkarteak goi-bilera egin du eta igorpen horien arriskuaz ahobatez mintzatu dira bertara bildutako aditu guztiak. Badago beraz, susmorik izateko arrazoia.

Poitiers-eko Ospitale Unibertsitarioko ikertzaileek baieztatu dutenez, pantailaren baten aurrean jarraian bi ordu baino gehiago pasa eta gero, ikusmen- eta kontzentrazio-arazoak sor-

biztanleak esate baterako, hotz handia eta izozte luzeak pairatzeko gai direla gauza jakina da, baina horren arrazoia ez zegoen hain garbi 50eko hamarkadan. Garai hartan, giza gorputzak hotzari aurre egiteko erabiltzen dituen moldaketa-mekanismok aztertzeko, EEBBetako Armadako ikerlari-talde bat Alaskako Slope Borough-era abiatu zen eta zenbait hilabetez, bertako biztanleekin lanean ihardun zuen. Ikerlariak uste zutenenez, baliteke tiroideak egokitzen bide horietan zerikusituzena izatea, guruin endokri-noak jariatzen dituen zenbait hormonekin zehatzago esanda. Berriki jakin dugunez, iodine-131 isotopoak injektatu zitzaizkien herritarrei tiroidearen funtzionamenduan eragiteko. Ikerketa-lerro horrek ez zuen

arrakastarik lortu eta azterketa bertan behera uztea erabaki zuten. Alabaina, Slope Borough-eko biztanleek ez dute ikerketa hain erraz ahaztuko, ikerlariak isotopoak injektatu zitzaizkien artean minbiziaren tasa asko handiagotu baita. Alaskako osasun-erakundeek erantzukizuna argitzeko proiektuaren berri emateko eskatu dute. Zenbait ikerlarik adierazi duenez, herrixka horretako biztanleei ez zitzaizkien egiten ari zenaren berri eman, ezta baimenik eskatu ere, jakina. Oraingoz, polemikaren hasierako datuak baino ez dira kaleratu, baina luze joko du eztabaidak. Izan ere, aurrerapenaren kostu sozialaz hausnarketa egiteko aukera ematen digu. Nork kontrolatuko du ikertzailea?

